



2014ko PRESTAKUNTZA PLAN BERRIA

Hurrengo otsailean hasita, EUDELek programa-bloke bi eta mintegi bat abian jarriko ditu, udalei 2014an eskainitako prestakuntzaren ardatza izango direnak.

1. Zuzendaritzako langileentzako **Udal Zuzendaritza Publikoari buruzko Programa Aurreratua.**
2. **Zeharkako Prestakuntza Plana** teknikari, administrari eta idazkaritza, ikuskaritza eta zuzendaritzako langileentzat.
3. **Udal Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegia** idazkaritza eta aholkularitza juridikorako.

Dagoeneko hasi da lehenengo programa bietarako izena emateko epea. Haien ikastaroak urtariletik aurrera egingo dira. Eskainiko den hurrengo programa Udal Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiaren 8. edizioa izango da. Aurten, berriro ere, udaletan eragina daukaten uneko araudien berri emango dute, zuzenbidearen eta irakaskuntzaren arloko izen handiko profesionalen eskutik.

Prestakuntzako eskaintza hori osatzeko, udal administrazioari buruzko unean uneko gai interesgarriak jorratzeko asmoz, jardunaldi edo saio monografikoak egongo dira, Udal Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legearen jarraipen berezia eginda.

EUDEL-HAEE/IVAP-FORU ALDUNDIEN ZEHARKAKO PLANA



Aurtengo Planaren barruan **97 ikastaro eta tailer** egongo dira, horietariko 31 aurrez aurrekoak eta 66, berriz, on line. Prestakuntzaren barruan administrazioaren oinarritzko gaiak eta udal jardueraren funtsezko arloak daude: gizarte-zerbitzuak, hirigintza, ingurumena eta etxebizitza, barne-antolakuntza eta giza-baliabideak eta, guztien artean nabarmenduta, aurten ere, arlo ekonomikoa.

Udal Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legea indarrean sartzearekin batera, hiru ikastaro espezifiko programatu dira: zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko; kontu-hartzailetzaren eginkizun berrirako (5.000 herritar baino gutxiago duten udalerrientzat), arlo ekonomiko-finantzarioan gaitasun teknikoak garatzeko (5.000 herritar baino gehiago duten udalerrientzat) eta sektore publikoa arrazionalizatzeko nahiz dimentsio berria emateko prozesuei ekiteko.

Tailer praktikoei berriro ere prestakuntzaren barruko zati handi bat hartzen dute, batik bat oinarritzko arloetan: kontratazioa, tramiteak sinplifikatzea, berrikuntza eta gardentasuna.

Berrikuntza, modernizazioa eta gardentasuna

Berrikuntza eta modernizazioari buruzko prestakuntza Tokiko Berrikuntza Agendekin (TBA) batera lantzen jarraituko dugu, proiektuak eta aurrez identifikatutako beharrianak abian jartzeko, esate baterako, prozedurak sinplifikatzea edo **Kudeaketa Plan eta Aurrekontu gardenagoak** prestatzea. Azken hauek EUDELen Gardentasun Sareko lanarekin ere sendotuko dira.

Teknologia berriak

Teknologia berrien arloan, sektore publikoaren Sareei buruzko ikastaro espezifikoa, 2.0, hodei digitala eta Gobernu Irekia egingo dira. Bien bitartean, **urtarrilean Teknologia Berrien Batzordea berriro jarri da abian**. Horren bidez, gainerako euskal herri-erakundeekiko lankidetzarako topagune egonkorra eta udalentsat onuragarriak izan daitezkeen ekimenak osatuko dira. Batzorde hau informazioaren iturri etengabea izango da teknologia berriei dagokienez eta udalek helarazi diezazkieketen kontsulta zein zalantza guztien arreta egingo du.



- **Planaren edukiei buruzko informazio gehiago edukitzeko HAEE/IVAPekin edo EUDELen prestakuntza-arloarekin harremanetan jarri zaitezke:**

HAEE/IVAP T. 944 031 600 prestakuntza@ivap.es

EUDEL Prestakuntza Saila Tel. 94 423 15 00 prestakuntza@eudel.net

Prestakuntzako eskaintza hau zure udal nahiz tokiko erakundearentzat interesgarria izango delakoan.